



Red de
Laboratorios
Transfronterizos de
Cooperación

Oinarriak LTC Sarea 2024

LTC Sarearen MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO LABORATEGIEN SAREA

LTC Sareari laguntzeko aukera eta motibazioa

Lehen LTCek 2021ean amaitu zuten Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Bordeleko Unibertsitateak (UBx) emandako 4 urteko laguntza aldia, eta aurrerapen handiak izan dira bikaintasun zientifikoari eta nazioartekotzeko ahalmenari dagokionez. Unibertsitateen laguntza funtsezkoa izan da, hasierako apustu hori gabe ez baikenuke gaur egun finkatuta dauden bost laborategiz osatutako sarerik izango, nahiz eta lau urtera mugatua egon den eta bereziki bideratua Euskadi-Akitania Berria euroeskualdearen perimetroan LTC bakoitzaren esparruan lankidetzaloturak sendotzera.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak emandako laguntzari esker, LTC Sarea programa diseinatu eta abiarazi zen 2021ean. Trantsizio-urtea izan zen aurretik existitzen ziren laborategiak gainerako LTCekin kohesionatzeko sare bidez. Programa berriak aukera eman du LTC zigiluaren bultzadari esker abiarazitako proiektu handiak mugaz gaindiko testuingurua (Euskadi -Akitania Berria) ere gainditzen duen posizionamendua eta dimentsioa lortzeko nazioartean. LTC Sareak aukera paregabea ematen du ikertaldeak handitzeko askotariko profilekin, elkarren artean osagarriak direnekin. Gradu eta graduondoko ikasleekin, lehen mailako doktoratu aurreko ikasleekin eta, batez ere, ikerketa-ildoak osatu eta dibertsifikatzeko gai diren doktoratu ondoko langileekin lan-proposamenak egiteko aukerari esker da hori. Bi helburu ditu: alde batetik, LTCak nazioartean zabaltzea esponentzialki hurrengo urteetan, bai kopuruari dagokionez, bai alorrei dagokionez. Bestetik, aukerak sortzea talde eta laborategi ezberdinetan txandakatuz mugikortasun-egonaldiak egin nahi dituzten ikasle eta ikertzaileentzako.

Gainera, LTC Sareak sakontzen du mugaz gaindiko lankidetzalaborategi horiek Euskadiko eta Akitania Berriko eskualde-testuinguruekiko duten loturarekin. Horretarako, ekimenak abiarazten ditu industriarekin konektatzeko eta emaitzak herritarren artean zabaltzeko.

Helburuak LTC Sarearen esparruan

Lurraldearekin konektatzeko eta are inpaktu handiago izateko aukera dago oraindik ere. Horretarako, helburu espezifikoagoak lortzera bideratutako ekimen berriak babes daitezke:

- LTC Sareak nahi du sustatzea LTCren sare egituratua eta koordinatua, Euroeskualdearen esparruan ikerketa-proiektuak gauzatzeko esparru egonkor bat sortzeko.
- LTC Sarearen helburua da osatzen duten eskualdeen RIS3an LTCek duten eragina maximizatzea. Horretarako, lurraldearekiko lotura maximizatzaera bideratutako jarduera batzuk jarriko dira abian.
- LTC Sarea aurrerapauso bat da ikertzaileen nazioz gaindiko komunitate iraunkor baten egituraketan, non LTCen bidez nazioarteko lankidetzaz-inguruneak sustatzen baitira.
Kontua ez da soilik nazioarteko ikerketa-taldeekin lankidetzaz handiagoa izatea, baizik eta sortzen diren harremanak sendotzea, kalitatezko lotura iraunkorrak ezarri ahal izateko eta iraupen luzeko proiektuak sortzen laguntzeko. Ildo horretan, bi jarduera-eremu nagusi bereizten dira:
 - ENLIGHT aliantzari lotutako unibertsitate eta erakundeena, LTC Sarerako lehentasunezko bazkideak baitira, eta horiekin jardunean ari baita marko instituzional egonkor eta konfiantzazko batean.
 - Sarerako estrategikoak diren beste unibertsitate eta ikerketa- eta berrikuntza-zentro batzuen.

Berrikuntza gisa, LTC Sarea programak LTC Sarea INNOVA izenekolan-ildoko berriak sartu ditu 2024. urtean. Hurrengo erronka berri hauek martxan jartzeko diru-laguntza eskatu daitezke:

- Gazteen artean talentu zientifikoa erakarri eta interesa piztea (gradu ikasleak, masterrak, doktoratu aurrekoak).
- LTC eta LTCInkubagailuek eragindako inpaktua neurtu eta kudeatzea
- Ekintzailatza eta ezagutza zientifiko-teknologikoaren transferentzia sustatzea.
- Taldeen adin eta generoaren arteko oreka hobetzea, batez ere LTC eta LTC Inkubatzailearen esparruan lantzen diren proiektu eta ekimenen lidergo-postuetan.

ENLIGHT aliantzaren mapa, EBko bederatzi unibertsitatek osatua.



Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da ikaskuntza-, ikerketa- eta transferentzia-aukerak sortzea ahalbidetuko duten ibilbide berriak eraikitzen joatea. Hala, emaitzak izango dira epe ertain eta luzean, hainbat jarduera-ildoren bidez, hala nola:

- LTC Sarea hormarik gabeko laborategietatik abiatuta eraikitzen da, eta talentu ikertzailea askatasunez jariatuz ahal izateko behar den malgutasunaz eta irekitasunaz hornitzen jarraituko da. Horregatik, ikerketa-egonaldi luzeak (2 edo 3 hilabete) egiten dituzten ikertzaileen mugikortasun-formulak landuko dira, partekatutako ekipamenduak eta gainerako baliabideak ustiatuz.
- Halaber, goi-mailako hezkuntza espezializatuaren lehen estadioetatik (master-ikasleak edo baita gradu ikasleak ere) talentu ikertzailearen sustapena bultzatzen duten prestakuntza-formula berritzaileak aktibatuko dira, eskainiz mugikortasun-egonaldiak, lab course kurtsoak, workshopak eta udako ikastaroak, ikerketarako interesa pizteko eta ikerketa-gaitasunak garatzen hasteko.
- Etorkizuneko zientziarako funtsezkoak diren zeharkako gaitasunen garapena sustatuko da, Zientzia Arduratsua (*Responsible Research and Innovation* edo RRI) ikuspegiaren ardatzetan oinarrituta.

ESPERO DIREN EMAITZAK

LTC Sareak launa jarduera-ardatz nagusiren eta azpi-ardatzen inguruko ekintzak sustatuko ditu, adierazitako helburuak lortzeko lagungarriak izango direnak:



AURREKONTUA

2024an LTC Sarearen estimatutako aurrekontua bideratuko da, batez ere, sarearen nazioarteko posizionamendua sendotzera, nazioarteko konexioen eremua zabaltzera eta lurraldearekiko lotura sakontzera.

Hala, Euskampus Fundazioak aurrekontua zuzenduko du existitzen diren LTCetara eta etorkizunean izango direnetara, hurrengo txantiloiei hauen arabera aurkeztuko diren proposamenak aztertuta:

- [LTC Sarea txantiloia, existitzen diren LTCetarako,](#)
- [LTC inkubagailuaren txantiloia,](#) etorkizunean LTC proiektu bat aurkeztuko duten eta partekatutako ikerketa agenda bat duten ikertaldeentzat.

Onuradunak

LTCko edo, hala badagokio, LTC bihurtzeko proiektuko (LTC Incubator) kide diren taldeen eta ikertzaileen erakundeak izango dira onuradunak.

LTC Inkubagailuaren laguntza bi aldiz bakarrik eskatu ahal izango da.